



HERRI MUSIKAREN 16. JARDUNALDIAK IZAN ZIREN

Aurtengo edizioa “Kultur ondarearen kudeaketa eta hedapena” gaiari eskainia izan da eta bere antolakuntzan Soinuenea-Herri Musikaren Txokoak EHU/UPV-ko Egokituz: Behar Berezitarako Gizaki-Konputagailu Elkarrekintza Laborategiaren laguntza izan du.

Joandako apirilaren 1 eta 2an ospatu genituen Oiartzungo Manuel Lekuona Udal Bibliotekan Herri Musikaren 16. Jardunaldiak.

Oraingoan Herri Musika Jardunaldiek kultur ondarea ikuspegi ezberdinetatik hedatzen aritzen diren beste erakundeekin elkarbanatzen dugun kezka bat jorratu zuten: nola zaindu eta zabaldu beraiek duten multimedia eduki ugaria.

Informazio eta Komunikazio Teknologiak izan duen garapenak Internet bidez azken urteetan publiko orokorraren esku kultur ondarearekin lotuta dagoen sekulako multimedia eduki pila jartzea ahalbidetu du. Eduki hauetatik asko, era guztietako ikerlari eta zaleek bildutakoak, sarrera mugatua zuten artxiboetan (zenbaitean pertsonalak) konfinatuta egon dira. Eduki hauen zabaltze unibertsalak beraiek ezagutaraztea eta hedatzea ahalbidetzen du, ikerketa erraztuz. Baina eduki hauek bildu dituzten artean hainbat zalantza daude: Nola kudeatzen da biltegi digital publiko bat? Nola ezagutarazi behar da informazio hau web inguruan bilatua eta aurkitua izateaz gain ulertua eta erabilia izan dadin? Ze legedik arautzen du eduki horien jabetza publikoki partekatu ondoren? Ba al dago zabaldu ezin den edukirik? Jardunaldi hauetan kultur ondarearen ikerketan eta hedapenean ari diren hainbat agente galdera horiei erantzuten saiatu diren zenbait ekintzei buruz eztabaidatzera bildu ziren.

Jardunaldiak hasteko Soinueneako zuzendaria den Juan Mari Beltranek hauek herri musika, eta honekin batera herrikoi kulturako alor asko, zaindu eta hedatzeari eragiten dioten alde ezberdinen hausnarketa eta eztebai-

daren barruan kokatzen zituen sarre-rako hitz batzuk esan zituen.

Ondoren, Soinuenea Lan-taldeko koordinatzailea den Emilio X. Dueñasek ongietorria eman eta jardunaldien helburua eta lan ildoak aurkeztu zituen. Soinuenea Lan-taldeko Xabier Etxabek jarraitu zuen hizlarien aurkezpenarekin.

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikaren Sailaren enkar-guz EMSIME garatu eta mantentzen duen Odei S. A. enpresako Rosa Ramírez eta Asun Lander izan ziren lehen hizlariak. EMSIME Euskadiko Errolda Nagusiko Ondasunen kudeaketarako sistema da. Hizlariak bere egitura eta Euskadiko titulartasun publiko zein pribatuko museotako kultur ondarearen edukia (informazio eta irudiak) aurkeztu zituzten. Gaur egun EMSIME-k Euskal Autonomi Erkidegoko 29 museotako era ezberdinetako kultur objektuen informazioa duten fitxa ugari ditu. Hitzaldia etorkizuneko EMSIME nolakoa izango den azalduz bukatu zuten.

Elhuyar Fundazioko kidea den Maddalen López de Lacallek Kultur Ondarearen kudeaketarako 2016an Donostiaren Europako Kultur Hiriburrutaren inguruan sortu zen Ondarebideak aplikazioa aurkeztu zuen. Gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatua, Ondarebideak 37 erakunde biltzen ditu eta kulturaren arlo ezberdinetako 27 gaiari buruzko ibilbideak proposatzen ditu. Bere egitura malguak “open data” filosofia jarraitzen du. Honek informazioa web bidez zabaltzen duten beste ekinbideekin elkarbanatzea errazten du.

Aplikazio hau “web semantikoan” sartzeko ezaugarri aurreratuak garatu

dituen UPV/EHU-ko IXA taldearekin elkarlanean garatu dute.

Miguel García eta Jorge Galván del Río, 2011 urtean Wikimedia España sortu zuen taldeko jarduneko kideak, kultur ondareari buruz dagoen multimedia informazio ugaria informazio egitura irekien bidez publikoarentzat irisgarri jartzearen garrantziaz jardun zuten. Horren adibide moduan Joaquín Díaz Fundaziotik jaso zituzten 2000 irudi, eta geroago Urueñako Museoko Fonotekako 21.000 hots artxibo, Wikimedia Commons-en nola txertatu zituzten azaldu zuten.

Museu de la Música Barcelona-ko Manel Barcons Carbonell kontserbatzaileak Museu-ak bere edukia MIMO-n txertatzeko jarraitu zuen prozesua azaldu zuen, tartean lan horrek beregan dituen zailtasun tekniko eta antolaketazkoak. MIMO publikoak diren bildumetan topa daitezkeen soinu-tresnen multimedia fitxaz osatutako online datu-base bat da. Datu-base ireki hau Europeana-rekin bateragarria izateko europar proiektu batean diseinatu zen.

Museo do Pobo Galego-ko M^a Concepcion Losada Vázquez eta Sergio de la Ossa-k Arquivo do Património Oral da Identidade (APOI) aurkeztu zuten. Zehazki, sarean APOI jartzeko Galicia-ko ahozko ondarea digitalizatzen, katalogatzen, aztertzen eta zabaltzen bizitu duten esperientzia azaldu zuten. Beraien lanean musika eta bere letarren transkripzio zehatza, musikari buruzko oharra eta horien transkripzioa, datu musikalen azterketa, eta alderdi musikal ezberdinen erabilera eta interpretazioari buruzko gidak aurki daitezke.

(Azken orrialdean jarraitzen du)

KONTZERTUAK SOINUENEAN

UDABERRIKO KONTZERTUA

2017ko maiatzaren 13an - 18:30 - Oiartzungo Udaletxean - 5 euro

MADDI OIHENART & SOKAHOTS ORKESTRA



Maddi Oihenart
ahotsa

Barkoxen alaba ta horko bortu ondoetan hüllantik ebili, senditü, bazterrekin dabilen botza zaindu du: artaldien zintzarradeekin, mendien seaskan herriaren hatsaz hazirik.

Gaur egun, kantatzen segitzen du, a capella baita musikariekin, Züberoko kanta ohizkoak, ta ere kantu berriak, ungruan dituen gaurko idazleri esker. Zuberoatik, Pireneoatara...

Lurretik dabilen abotsa, hodeietarat doana, sentipenekin altxatzen du. Kantu horietan hizkuntzaren ederra entzuten da, ta hitzen barrutik, mundu sinboliko barnakorra, da azaltzen.

Maddiri gustatzen zaio gehien bat, entzutea, ezagutzea, harreman sortzea jendeekin: hala nola hasi zen kantan Batixta Sobiet-ekilan, altzaiko artzain batekin. Ondotik segitu du Mixel Etxekopar ta Mixel Arotzerekin, baita ere Josetxo Goia, Juantxo Zeberio, Pello Ramirez, Txema Garces... ta momentuan Jérémie Garat musikariekin.



Jérémie Garat
gitarra eta txeloa

Musikari konpositore gaztea da Jérémie Garat, Xiberoan; Sohütako seme. Rock kultura bai ta Xiberoa ohizko kantagintzaz hazia.

Bere musikari lagunekin -(la chute de la maison Usher, Jean Epstein)-musikatu dute, eta bereziki 2011an, XORA xiberotar filmaren musika berak honu du.

Gustatzen zaion zine musika eremu horrez, bere sokak -gitarra bai txeloz- batzen ditu sensible, argitxu, kantarisaren botza argituz.

Oihan Oliarj-Ines

Maddi eta Jérémiek Oihan izango dute kontzertu honetan lagun. Müsika tresna asko erabiltzen dütü: eskü soinu, triki, teklado, gitarra apala.

Euska Herrian gairdik gazterik ebili da soinu dantzak harrotzen.

Kontserbatorioa ürrentü eta bere influentziak rock punk, pop, reggea, hiphop bai ta jazz eremuetan murgiltzen dira. Oinarriak rock mundutik hartuz, Landes eta Euskal Herrian segitzen du gaur egün.

«DOI» diskoa

Oiartzunen hirukote honek emango duen kontzertuan Jérémie eta Maddik elkarrekin sortutako «Doi» izeneko diskoko doinuak entzuteko aukera izango dugu.

«Doi» bilduma honetan musikatu diren poema gehienak Itxaro Borda eta Leire Bilbaorenak ditugu gaurko musikaz aspilturik.

Xiberoako kantarisaren botza, ezohiko uneak sorrarazten dauzkigu. Sendiarazten du bizitzaren bihotzetiko, sinesmen gordeetatik mundu sensible bat idekitzen du.

Ohizko ala gaurko; maitasunezko, erbestu, euriari indartsu ala atsegin eremuetan ibilitzen da hirukotearen lana.

ETA GOIZEAN

EMANALDI DIDAKTIKOA
Euskal Dantza-jokuak

Lekua: ABARAXKA
Kontzejupe plaza
20180 Oiartzun

Eguna: 2017-05-13

Ordua: 11:00

Abaraxkako monitoreen gidaritzapean Euskal Herriko plazetan dantzatzen diren hainbat dantza-joku dantzatzeko aukera izango dute hurrek eta haiekien datozenek.

LUIS DELGADO

Munduko musika



Madriden sortua, bizitza soinu-tresnak jotzen eta musika konposatzen, ikertzen eta zabaltzen eman du. Alor honetan, kongresue, kontzertu, ikastaro, tailer eta hitzaldiak emanaz gauzatu da bere lana. Guzti honek mundu osoko 1200 soinu-tresna baino gehiagoko bildumaren zati bat erakusten duen Valladolideko Urueña herrian dagoen eta urtero 4000 bisitari inguru jasotzen dituen “Museo de la Música” deitutakoan hartu du itxura.

Andalusi eta Erdi Aroko musikan aditua, gai honen inguruko filmetako soinu banden sortzailea da. Hogeita hamar bat disko argitaratu ditu bakarrik munduan zehar kontzertu ugari emanaz. Bere musika dokumental eta filmetan maiz erabiltzen da. Horien artean Ridley Scott-en “Kingdom of Heaven” nabarmentzen da.

Aldi berean, oholtzara eraman diren hainbat emankizun sortzaile moduan zuzendari, koreografo eta dantzari ezberdinentzat lana egitera

eraman dute. Horien artean daude José Luis Gómez, Gerardo Vera, Victor Ullate, Jesús Castejón, José Pascual eta Juan Carlos Corazza.

Ekoizle eta musikari bezala, estudioan bezala zuzenean, Amancio Prada, María del Mar Bonet, Joaquín Díaz, Vainica Doble, Manuel Luna, Luis Paniagua eta Javier Bergia bezalako artistekin aritu da.

Beste medioentzat egin duen lanaz gain, azpimarratzekoa da Madrideko Planetarioak bere ateak ireki zituenetik bertako musikari egoiliar moduan egin duena, Iruña, New York, A Coruña, Valladolid, etabarrerako ere arituaz. Bere lana hainbat sari eta izendapenekin aitortua izan da. Nabarmenenak “Premio de la Academia de las Ciencias y las Artes de la Música”, “Premio Max de Teatro a la Mejor Música para Espectáculo Escénico” eta “Premio Trovador de Alcañiz a las Artes Musicales” dira.

Kontzertua

Kontzertu honetan gizadiaren hots-mosaikoa osatzen duten kultura ezberdinen soinura hurbilduko gara, entzuleei bere eguneroko inguruan ohikoak ez diren soinu-tresnak eza-gutzeko aukera emanez.

Soinu-tresna ezberdinak entzuteaz gain haien historia eta beraien erai-kuntzaren ezaugarriak, esanahi sinbolikoa eta garapena ere ezagutuko ditugu. Kontzertuaren helburua guretzat ezezagunak diren tinbreak ezagutzera ematea, eta gure kulturaren parte izanik hedapen urriko garaiak izan dituzten soinu-tresnak, zarrabetea esate baterako, gerturatu eta ulertzea da.

Soinu-tresna elektronikoak ere ager daitezke, XX. mende hasierako asmakizun harrigarrietatik abiatu eta duela gutxi asmatutako soinu-tresna elektronikoetara.

Besteak beste, kulturari dagokionez gertu dauzkagun *Guimbri* marokarra, *Saz* turkiarra eta *Santur* pertsiarrekin batera urrutiko kulturetakoak diren *Danmoi* bietnamiarra, *Siyotanka* amerikarra, Mexikoko *Llorona*, *Fujara* eslobakiarra edota *Theremin*-a ikusiko ditugu.

Oholtzan barrena desfilatzen denbora tarte baterako gure egunerokotasunetik urrutiratzen gonbidatuz munduko musiken kaleidoskopio zirrargarrira hurbilduz beste leku batetara, beste garai batetara, eramango gaituzten soinu-tresna bilduma ederra ikusiko dugu.

Eguneroko zereginak une batez baztertu eta soinuaren eskutik denboran eta geografian zehar bidaiatzeko aukera bat.

AFARIA KONTZERTUAREN ONDOREN

Afaria kontzertutik gertu, Aialde kaleko 6.ean izango da, Ibergain elkartearen. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da.

Afartzeko lekua gordetzeko Soinuenera deitu eta izena ematea komeni da.

Afaria + Kontzertua: 20 euro

kontzertu honen laguntzaileak:

KULTUR, JOLAS ETA KIROL ELKARTEA

ibargain
Aialde OIARTZUN

TIRIKITRAUKI
MUSIKA DENDA

esku-soinuak
9 ZERO SETTE
Lasarte-Oria
Tel/Fax 943 372 617
www.tirikitrauki.com

(Lehen orrialdearen jarraipena)

Bestalde, Muséu dela Gaita de Gijón-eko zuzendaria den Alfonso Fernández-ek Museo del Pueblo de Asturias-Museo de la Gaita de Gijón-en atal bat den Archivo de la Música Tradicional Asturiana-ren esperientzia aurkeztu zuen. Museoa bere inguru sozio-politikoan kokatu ondoren artxiboaren sorrera, eboluzioa, eta erabateko geldialdira eraman duten gertaera eta zailtasun ekonomikoak aztertu zituen.

Larunbateko egitaraua Ansa ahizpek eta haien amak eman zuten herri kanten "ARTAnTXURIKETAn, ama alabak" saio bikainarekin bukatu zen. Ahozko tradizioen transmisioa irudikatu zuten baserriko sukaldean arta zuri-keta nola egiten zen antzetzuz.

Igande goizeko saioan EHuko Zuzenbide Fakultateko irakaslea den Isabel Hernando Collazos legediak kultur ondareari buruzko multimedia informazioaren erabilpen eta jabetzari buruz zer dioten azaldu zuen. Hizlariak bost ataletan informatzaileen bidez jasotako multimedia edukia web bidez publikoaren esku jarri aurretik zer jakin behar den zehaztu zuen.

Azkenik, Vrije Universiteit Amsterdam-eko irakasle emeritua den Gerrit van der Veer-ek "Internet kultur ondarea gordetzeko leiho bat" hitzaldia eman zuen. Kultur ondarearen transmisioan alor ezberdinetako ekintzaileen heziketan izan duen esperientzia azaldu zuen. Tradizioa eta hura etorkizuneko belaunaldiari transmititzeko aukera bizi eusteko kultur objektuaren ingurunea eta haren eboluzioa azaltzea zeinen garrantzitsua den azpimarratu zuen. Horretaz gain, interesdun bakoitzak izan dezakeen behar edota jakin-minaren araberrako informazio maila eskaintzearen garrantzia azaldu zuen. Jardunaldien aurretik Gerrit van der Veer maisuak berak kultur ondarea web bidez zabaltzeari buruzko ikastaro praktikoa eman zuen EHuko Informatika Fakultatean. Bertan parte hartu zutenek eramandako edukiekin irakaslearen azalpenak jarraituz lan egiteko aukera izan zuten.

Jardunaldietan interes handiarekin eta hitzaldi bakoitzaren ondoren, zein atsedendietan, galdera eta iritzi interesgarriekin aktiboki parte hartu zuen entzuleria elkartu zen.

TXALAPARTA ZALEEN FESTA

Maiatzeko urteroko egitarauaren parte den Hernaniko Txalaparta Festa hemen da. Aurten maiatzaren 19 eta 20an izango da; ostirala eta larunbata. Honekin hogeita hamaikagarren edizioa du txalaparta zaleentzat erreferentziazko topalekua den honek. Hernaniko musika eskolan Juan Mari Beltranek eta orduan txalapartaren bueltan ibiltzen zirenek topaketa hau abiatu zutenetik makina bat urte pasa dira eta belaunaldi berriek hartu dute testigua. Orain Hernani Musika Eskola Publikoaren zati bat den Ttakun Ttan Ttakun taldea da Txalaparta Festaren antolaketan aritzen dena Aitor Beltran irakaslearen zuzendaritzapean.

Aurtengo egitarauaren hasieran Biteri Kultur etxean ostiralez arratsaldeko zazpi t'erdietan Donostiako KIMU taldeak emango duen kontzertua ageri da. Hurrengo egunean egitarau zabala izango da Ezkiaga pasealekuan. Eguerdian Hernani Musika Eskola Publikoko alboka, dultzaina, trikitixa eta txistu taldeak aterako dira kalera giroa alaitzera. Han izango da txalaparta jarria nahi duenak jo dezan.

Eguerdiko ordu bi t'erdietan bazkari herrikoia izango da. Txartelak 16 euro balio ditu eta hori eskatzeko antolatzaileek helbide elektronikoko hauek eman dituzte: aitorbeltran@yahoo.es eta soinuenea@soinuenea.eus. Bestela, Hernani Udal Musika Eskolara bertara edo Soinueneara deitu daiteke.

Ondoren Hernaniko bertsolariekin hasiko da Euskal Herriko alde ezberdinetatik etorritako txalapartariak emango duten Jaialdi Nagusia.

Eguna Atxur tabernan bukatuko da DJ Barru eta hainbat txalapartarik emango duten Txalaparta Party Apartarekin.



Aurtengo kartela. SNN

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 810
Antolatutako taldeak: 26

Bisitari kopurua maiatzera arte: 54895

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 16037

Soinuenea - Herri Musikaren Txokoa

Tornola kalea, 6 - 20180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

soinuenea@soinuenea.eus

www.soinuenea.eus



OIARTZUNGO
UDALA